

Prensa oharra

Nota de prensa



Txaparrene Pasealekuko zoladura berritzeko obrak kontratatzeko espedientea onartu da

Pasealekuko egitura osoa eraberrituko da, bidegorri bat seinaleztatuko da eta zuhaitzen parte bat berrituko da

Tokiko Gobernu Batzordeak Txaparrene Pasealekuko zoladura berritzeko obrak kontratatzeko espedientea onartu du. Lanek 999.692 euroko aurrekontua dute eta burutzeko epea 6 hilabetekoa da. Ekialdeko Barrutiko Batzarrak bultzatuta, Udaleko Bide Publikoen Zerbitzuak idatzi du proiektua.

Lanak pasealekuaren egitura osoa eraberritzea dakar, bide-zoruen konponbidea bidearen egungo beharretara egokituz. Eremuaren oinezkoentzako izaera gordeko da, eta hura inguratzen duen ingurune naturala errespetatuko da.

Halaber, eta bidea egiten duten bizikleta-erabiltzaileen kopurua nabarmen handitu dela kontuan hartuta, zoladuran bidegorri bat seinaleztatuko da, oinezkoen eta txirrindularien arteko paseoaren erabilera hobeto antolatzeko eta, modu honetan, ibilbidearen segurtasuna hobetzeko.

Argiztapen sarea berrituko da, eta zonako zuhaiztiaren parte bat ere, zuhaitzen egonkortasun baldintzak arriskuan dauden neurrian.

Anoeta Estadioaren ingurunearen berrurbanizazioa

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ditu Anoeta Estadioaren ingurunearen berrurbanizazio proiektuari dagozkion obrak egiteko kontratazio espedientea eta kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Zehatzen Agiriak.

Lizitazioaren aurrekontua 2.262.000 eurokoa da, eta gauzatze epea 9 hilabetekoa.

Aldamar kaleko kolektorea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Aldamar kaleko saneamendu kolektorea birgaizteko eta hobetzeko proiektuko obrak egikaritzeko kontratazio espedientea. Lizitazio aurrekontua 413.337 eurokoa da, eta gauzatze epea 5 hilabetetakoa.

Marañón Doktorea Pasealekua

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Marañón Doktorea Pasealekuko berrurbanizazioa eta irisgarritasuna hobetzeko proiektuan jasotako obrak egiteko kontratazio espedientea. Donostiako Udaleko Bide Publikoen Zerbitzuak idatzi du eta 376.812 euroko aurrekontua du.

Erdialde Zahar Etxea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Erdialde Zahar Etxea birgaizteko exekuzio-proiektua idaztea xede duen kontratazio espedientea. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 78.650 eurokoa da eta egikaritze epea 14 astetakoa.

Prensa oharra

Nota de prensa



Gaueko Aterpea eta Haur Parkeak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Arrats Elkarteari esleitzea gaueko harrera zerbitzua xede duen kontratua. Kontratuak urte beteko lizitazioa dauka eta bi urteko exekuzio epea. Aurrekontua 546.000 eurokoa da.

Halaber, onartu du Montes Garra S.L. enpresari esleitzea ondorengo haur parkeen segurtasun-zoladurak berritzeko proiektuan jasotako obren kontratua: Miramon, Atotxaerreka, Pio Baroja, Maritxu Guler, Altza 12-14, Camino del Francés eta José Elo segi.

Aurrekontua 94.462 eurokoa da, eta gauzatzeko epea 8 astekoa.

Donostian, 2022ko irailaren 13an